

GIZARTE ETA ENPRESA ERANTZUKIZUNA GIZARTE ETA LAN ARLOKO GOGOETAK

Mutualiak, gizarte arloan kudeaketa arduratsua izateko dugun konpromisoa betez, «Europa 2020 Estrategia», hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzaileko estrategiarekin bat egin du. Estrategia honen oinarritzko hiru helburuetako bat enplegu maila altua eta kohesio soziala dituen ekonomia lortzea da.

Helburu hori lortzeko bitartekoetako bat gure kontratazioak estrategikoki erabiltzea da, obra, ondasun eta zerbitzuen horniduran erabiltzen ditugun baliabideekin gizarte-politikako helburuak inplementatzeko.

Guretzako, gizarte arloan arduratsuagoa den kontratazio publiko bat, errentagarritasun sozial handiagoa lortzea, erronka bat da, eta era berean, baita 2014ko urtarrilaren 14an Europako Batzordeak eta Parlamentuak onetsitako kontratazio publikoei eta emakidei buruzko zuzentarau berrien eta Sektore Publikoko Kontratuen Lege berriaren agindu bat ere.

Horregatik, gure kontratazioko eta enpresa eta pertsona hornitzaileak hautatzeko prozeduretan indarrean dagoen araudia betetzeaz gain, lan- eta gizarte-arloko gogoetak txertatzen ditugu, eta kontratu bakoitzaren iraunaldian zehar horiek betearazteko ardura hartzen dugu.

Gizarte-alderdien barnean hiru eremu desberdinu ditzakegu:

Lan-harremanak: Eremu honetan sartzen dira enpresak langileekiko dituen lege-betebeharren gainera langileekin lotuta egiten duen guztia.

Gizartearekiko harremana: Enpresa eta gizartearen eta jarduten duen komunitateen artean harreman ukazina dago. Erakunde batek beti eduki behar du kontuan gizartea, eta zenbat eta konprometituagoa eta arduratsuagoa izan beraiekin, orduan eta jasangarriagoa izango da enpresaren jardura.

Gizarte-ekintza: Enpresa batek, bere jardueraz gain, gizarteari ematen dizkion gauza guztiak.

Lan-harremanari buruz, zalantzarik gabe, enpresak langileekiko dituen funtsezko betebeharrak bete behar ditu, eta Mutualian jarraipena egiten dugu hala gertatu dadin, baina nahi duguna gure aliatu eta enpresa eta pertsona hornitzaileek gizarte ardura korporatiboaren arloko jardunbide egokiak ezartzea da, lan-ingurua hobetu ahal izateko alderdi jakin batzuetan:

- legedi nazionalak agintzen duena baino desgaitasuna duten pertsona gehiago kontratatzea
- lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegua sustatzea laneratze-enpresen bidez; bereziki, desgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterketarako arriskuan dauden pertsonena
- lan-merkatuan, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezereztea; hala, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatuko duten neurriak ezartzea bultzatuz,
- lan-merkatuan emakumearen ahalik eta partaidetza handiena eta laneko eta familia-bizitzaren bateragarritasuna bultzatzea;

- langabeziari aurre egitea; bereziki, gazteei, emakumeei eta luzaroan lanik gabe daudenei eragiten diena;
- lanpostuan prestakuntza bultzatzea, baita sektoreko eta tokiko hitzarmen kolektibo aplikagarriak betetzea ere;
- laneko istripuak prebenitzeko neurriak betetzea;
- oinarrizko lan-eskubideekiko errespetua bermatzea produkzio-kate osoan zehar, Laneko Nazioarteko Erakundearen funtsezko konbentzioak betetzeko eskakizunaren bidez

Gizarte-ardura korporatiboak gizartearekin duen harremana kontuan hartuta, erakundeak jarduten duen tokiko inguruan integratzea ere barne hartzen du.

Badakigu, enpresen tamaina alde batera utzita, enpresek ekarpen handia egiten dietela kokatuta dauden komunitateei. Enpresek duten berezko izaeragatik inguruarekin elkarreaginean daude eta eragin positiboak sortzen dituzte (adibidez, lanpostuak sortzen dituzte, lurraldea dinamizatzen dute...), baina baita negatiboak ere (kutsadura adibidez).

Alderdi sozialari dagokionez, gizartearekin dugun harremana gizarte-kapitala sortzera bideratzen dugu eta hainbat forma hartu ditzake, gatazka zehatzak konpontzera bideratutako elkarrizketa-ekintzetatik luzaroan iraun dezaketen loturak sortzeraino komunitatearen garapen sozioekonomikoa hobetu eta gure aliatuekin (enpresak eta pertsona hornitzaileak) lankidetzarako sare eta akordioak ezartzeko. Enpresak komunitatean duen parte-hartze jarraitu eta epe luzekoaren bidez, enpresaren helburuek jarduten duen komunitatearen gizarte, ingurumen eta ekonomiaren arloko beharrek bat egitea lortu nahi dugu. Horrek helburu bikoitza du: alde batetik, tokiko garapen sozioekonomikoa bultzatzea, eta, bestetik, enpresaren lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzea; hori guztia gure kontratazio-sistemek oinarritzat dituzten tratu-berdintasunaren, diskriminazio-ezaren eta lehiaren printzipioak zorrotz errespetatuz.

Testuinguru honetan, aliatu edo hornitzaile arduratsuak ahal duen guztia egin behar duela uste dugu jarduten duen komunitateetan garapen jasangarria bultzatzeko. Horregatik, elkarrizketa ireki eta zintzoa izan behar du gizartearekin, bientzako garrantzitsuak diren eta enpresak landu ditzakeen gaiak identifikatzeko; eta enpresak gai horiek landu beharko ditu.

Gizarte-ekintza

Egungo gizarteak komunitatearekiko konpromisoa eta bertan parte hartzea eskatzen die enpresei gero eta gehiago. Mutualian uste dugu ona dela gure aliatu eta enpresa hornitzaileek gizarte-ekimenetan parte hartzea, eta beren programak modu estrategikoan bideratzea, enpresa-helburuekin elkartzuz. Horrela, inbertsioa onuragarria izango da bai komunitatearentzako bai enpresarentzako.